



[2010/3/04ko prentsa-oharra](#)

HIGIEZINEN ESKAINTZARI BURUZKO ESTATISTIKA (OFIN). 2009ko 4. hiruhilekoa

2009ko hirugarren hiruhilekotik laugarren hiruhilekora metro koadro erabilgarriaren prezioa % 1 jaitsi da etxebizitza erabilian, eta % 0,2 etxebizitza berri librean Euskadiko Autonomia Erkidegoan

Higiezin agentziek etxebizitza bat saltzeko behar duten batez besteko denbora 8,6 hilabete da, hots, aurreko hiruhilekoan baino hilabete-erdi gutxiago.

2009ko laugarren hiruhilekoan, etxebizitza erabiliaren metro koadro erabilgarriaren batez besteko prezioa (Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailak egindako Higiezin Eskaintzari buruzko Estatistikak eskaini duena), hirugarren hiruhilekoarekin alderatuta, % 1 jaitsi da, eta aurreko urtearekin alderatuta, berriz, % 10. Horrela, beraz, 3.779 eurora iritsi da.

Araban, higiezin-agentziek eskainitako etxebizitza erabiliaren metro koadroaren prezioa % 2,4 igo da hiru hilabeteen baina % 1,1 txikiagoa da 2008ko laugarren hiruhilekoarekin alderatuta. Bizkaian, berriz, % 4,1 jaitsi da hirugarren hiruhilekoarekin alderatuta, eta % 18,5eko jaitsiera metatu du azken 12 hilabeteotan. Gipuzkoan, azken hiruhilekoa egonkorragoa izan da (% 0,7 igo da). Urtea kontuan hartuta, berriz, % 2,5 jaitsi da.

Donostian, etxebizitza erabilien metro koadroko prezioa % 2,4 jaitsi da azken hiru hilabeteetan. Gasteizen, berriz, % 1,3 igo da. Bilbon ez da aldaketarik izan. Urteko bilakaera kontuan izanda, Bilbon % 8,8ko hazkunde negatiboa metatu da, Donostian % 7,4koa eta Gasteizen % 3,5koa.

Higiezin-agentziek bitartekari-lanak egiten dituzte, eta aditzera ematen dutenez, etxebizitza erabilien prezioak batez beste % 11,4 inguru jaitsi beharko dituzte saltzaileek salmenta-eragiketak egikaritzeko. Ehuneko hori portzentajeazko 0,6 puntutan hazi da azken hamabi hilabeteetan, baina portzentajeazko 1,8 puntutan jaitsi da urte horretako hirugarren hiruhilekoarekin alderatuta.



Etxebizitza berri librearen metro koadroaren eskaintza-prezioak (4.033 euro) ia ez du aldaketarik izan. Izan ere, hiruhilekoan % 0,2 jaitsi da, eta % 0,5eko urteko beherakada metatu da.


Etxebizitza berri librearen metro koadroaren prezioak % 0,6ko aldaketa izan du Araban 2009ko hirugarren hiruhilekoarekin alderatuta, eta % 6,4ko hazkundera metatu du azken 12 hilabeteetan. Gipuzkoan metro koadroaren prezioa % 1,4 igo da azken hiru hilabeteetan, eta % 3 metatu da azken urtean. Bizkaian, aitzitik, % 1 jaitsi da hirugarren hiruhilekoarekin alderatuta, eta % 4,7 galdu du urte osoan.

Etxebizitza librearen metro koadroaren prezioa % 1,4 igo da Donostian azken hiruhilekoan

Gasteizen, etxebizitza librearen eskaintza-prezioek % 0,5 egin dute behera, eta Bilbon, aldiz, ia ez dute aldaketarik izan (% 0,3 jaitsi dira). Azken hamabi hilabeteetan, etxebizitza librearen metro koadroaren eskaintza-prezioa % 9,2 igo da Gipuzkoako hiriburuan. Vitoria-Gasteizen, berriz, % 5,7ko jaitsiera izan da eta Bilbon prezioek % 4,3 egin dute behera.

Enpresa sustatzaileek eta higiezin-agentziek etxebizitza librearen guztizko prezioa 7.900 eurotan jaitsi dute azken 12 hilabeteetan, hau da, % 2,3)

Etxebizitzaren m² erabilgarriaren arabera batez besteko prezioaren bilakaera etxebizitza motaren arabera eta hiruhileko bakoitzeko. 1996-2009. Euskadiko AE. Euroak.



Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila. Higiezinaren Eskaintzari buruzko Estatistika

EREDUZKO ETXEBIZITZA: Etxebizitza berria, kolektiboa, sustapen librekoa, sustatzaileak zuzenean eskainitakoa, akabera-maila "normalarekin" eta 60-90 m²-ko azalerarekin.

Enpresa sustatzaileek eta higiezin-agentziek eskainitako etxebizitza berri librearen batez besteko prezioa 329.300 euro izan da 2009ko laugarren



ETXEBIZITZA, HERRI LAN
ETA GARRAIO SAILA
Zerbitzu Zuzendaritza
Estatistikarako Organo Berezia

DEPARTAMENTO DE VIVIENDA,
OBRAS PÚBLICAS Y TRANSPORTES
Dirección de Servicios
Órgano Estadístico Específico

hiruhilekoan, eta % 0,7 jaitsi da aurreko hiruhilekoarekiko eta % 2,3 azken hamabi hilabeteak kontuan hartuz gero.

Bigarren eskuko etxebizitzaren batez besteko guztizko prezioa –310.100 euro– 19.200 euro gutxiago da batez beste etxebizitza berri librearena baino, % 1,3 jaitsi da azken hiruhilekoan, eta jada % 8,7ko jaitsiera metatu du azken 12 hilabeteetan. Hortaz, 29.500 euroko murrizketa izan da.

Araban, % 1,8 igo dira etxebizitza librearen eskaintza-prezioak azken hiruhilekoan, eta etxebizitza erabiliarenak, aldiz, % 2,7. 2008ko laugarren hiruhilekoa erreferentziazat hartuta, % 7,8ko igoera metatu du lurralde horrek etxebizitza berri librearen prezioan, eta % 1,7koa etxebizitza erabiliarenean. Etxebizitza librearen batez besteko prezioa 293.300 eurora iritsi da lurralde horretan, eta erabiliarena, berriz, 295.200 eurora.

Bizkaian, laugarren hiruhilekoan etxebizitza libreak izan duen eskaintza-prezioa 322.300 euro izan da, eta % 2,1ko jaitsiera izan du azken hiru hilabeteetan eta % 7,1ekoa azken urtean. Etxebizitza erabiliaren prezioak % 4,3 egin zuen behera hirugarren hiruhilekoarekin alderatuta, eta % 16,5 azken hamabi hilabeteetan; gaur egun, batez besteko prezioa 294.100 euro da.

Etxebizitzen batez besteko preziorik altuenak Gipuzkoan daude berriz ere, 360.000 euro etxebizitza libre berriak eta 374.300 euro bigarren eskukoak, etxebizitza berri librearen prezioak % 0,7ko aldaketa izan du azken hiru hilabeteetan. Etxebizitza erabiliarenak, berriz, % 0,5 egin du behera. Azken hamabi hilabeteetan, etxebizitza berri librearen eskaintza-prezioak bere horretan jarraitu du, baina bigarren eskukoarenak % 6 egin du behera.

Etxebizitza berri librearen eskaintza-prezioa 32.100 eurotan jaitsi zen Bilbon, eta 19.800 eurotan Gasteizen azken hamabi hilabeteetan Donostian, aldiz, 9.200 euroko igoera izan zen.

Azken hiruhilekoan, higiezin-agentziek eta enpresa sustatzaileek % 1,3an murriztu dituzte etxebizitza berri librearen prezioak Bilbon. Gasteizen, berriz, prezioek % 1,1eko igoera izan dute, eta Donostian % 0,3koa. Batez besteko prezioa 389.700 euro izan dira Bilbon, 311.600 euro Vitoria-Gasteizen eta, garestiena, 463.700 euro Donostia-San Sebastianen. Azken 12 hilabeteetan, Gasteizek eta Bilbok % 6ko eta % 7,6ko murrizketa metatu dute, hurrenez hurren, eta Donostian, aldiz, % 2 igo dira prezioak.

Etxebizitza erabiliaren salmenta-prezioa % 3,5 jaitsi da azken hiruhilekoan Donostian. Gasteizen eta Bilbon, berriz, % 1,8 eta % 1,6 igo da, hurrenez hurren. Lehenengoan, 2008ko laugarren hiruhilekotik aurrera, % 11,6ko jaitsiera izan da –60.900 euro gutxiago batez beste–, eta Bilbon % 2,9koa –10.700 euro gutxiago–. Gasteizen, berriz, % 0,2 baino ez da jaitsi, hau da, 500 euro gutxiago.



Azken urtean % 12,7 igo da higiezin agentziek eta erakundeek egindako alokairuko etxebizitzaren eskaintza

Alokairuko etxebizitzaren —librea eta soziala— eskaintza-bolumena % 8,8 hazi zen azken hiru hilabeteetan eta % 12,7ko hazkundera metatu du urtebetean, hau da, eskaintzaren guztizkoaren hamar etxebizitza bakoitzeko bat baino zertxobait gehiago.

Etxebizitza libreen alokairuko batez besteko errenta 875,3 euro da, hots, hirugarren hiruhilekoan baino % 2,1 gutxiago, eta erreferentzia gisa 2008ko laugarren hiruhilekoa hartuz gero, % 9,7ko jaitsiera izan du prezioak.

Etxebizitza babestuen —BOEak eta etxebizitza sozialak— alokairuko batez besteko errenta 219,8 euro da, hots, aurreko hiruhilekoa baino % 2 gutxiago eta hamabi hilabete lehenago baino % 6 gutxiago.

Sektore babestua —BOEak eta etxebizitza sozialak— eskaintako bost etxebizitza bakoitzeko bat ari da merkaturatzen, 115.300 euroko batez besteko prezioan –1.469 euro metro koadro erabilgarri bakoitzeko—. Etxebizitza horien metro koadroaren batez besteko prezioa % 1,1 igo da azken hiru hilabeteetan, eta % 7,1 2008ko hiruhileko berarekin alderatuta.

Higiezin-agentziek etxebizitza bat saltzeko behar duten batez besteko denbora 8,6 hilabete da, hau da, duela urtebetekoaren ia berdina eta aurreko hiruhilekoan baino hilabete-erdi gutxiago.



ETXEBIZITZA, HERRI LAN
ETA GARRAIO SAILA
Zerbitzu Zuzendaritza
Estatistikarako Organo Berria

DEPARTAMENTO DE VIVIENDA,
OBRAS PÚBLICAS Y TRANSPORTES
Dirección de Servicios
Órgano Estadístico Específico

HIGIEZINEN ESKAINTZARI BURUZKO INKESTA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN		2009ko 4. hiruhilekoa		Aurreko hiruhilekoarekiko aldaketa		Aurreko urteko hiruhileko berarekiko aldaketa	
ERABILGARRIAREN BATEZ BESTEKO PREZ		Euroak		Euros	Var %	Euros	Var %
Euskal Autonomia Erkidegoa	B.O. berria/Etxeb. Soziala	1,469		15.5	1.1	96.9	7.1
	Berria librea	4,033		-6.3	-0.2	-21.3	-0.5
	Erabilia	3,779		-38.0	-1.0	-420.2	-10.0
Araba	Berria librea	3,466		22.1	0.6	208.6	6.4
	Erabilia	3,550		81.8	2.4	-41.2	-1.1
Bizkaia	Berria librea	4,035		-42.3	-1.0	-198.8	-4.7
	Erabilia	3,582		-155.0	-4.1	-812.1	-18.5
Gipuzkoa	Berria librea	4,373		62.2	1.4	129.2	3.0
	Erabilia	4,686		31.9	0.7	-122.6	-2.5
Euskal Autonomia Erkidegoa	(1) MOTAKO ETXEBIZITZA	3,338		-42.0	-1.2	-90.2	-2.6
Berria librea	Gasteiz	3,724		-20.4	-0.5	-222.2	-5.7
	Bilbo	5,135		-15.5	-0.3	-227.3	-4.3
	Donostia	5,532		79.9	1.4	471.2	9.2
Erabilia	Gasteiz	3,555		45.0	1.3	-128.9	-3.5
	Bilbo	4,242		-1.4	0.0	-410.9	-8.8
	Donostia	5,727		-136.9	-2.4	-447.0	-7.4
ETXEBIZITZEN BATEZ BESTEKO PREZIOA		Milaka Euro		Milaka Euro	Ald %	Milaka Euro	Ald %
Euskal Autonomia Erkidegoa	B.O. berria/ Etxeb. Soziala	115.3		0.9	0.8	7.2	6.6
	Berria librea	329.3		-2.2	-0.7	-7.9	-2.3
	Erabilia	310.1		-4.1	-1.3	-29.5	-8.7
Araba	Berria librea	293.3		5.3	1.8	21.3	7.8
	Erabilia	295.2		7.7	2.7	4.9	1.7
Bizkaia	Berria librea	322.3		-6.9	-2.1	-24.6	-7.1
	Erabilia	294.1		-13.3	-4.3	-58.3	-16.5
Gipuzkoa	Berria librea	360.0		2.6	0.7	0.0	0.0
	Erabilia	374.3		-2.0	-0.5	-24.0	-6.0
ETXEBIZITZA ESKAINTZA		Unitateak	%	Unitateak	Ald %	Unitateak	Ald %
Euskal Autonomia Erkidegoa	Gutzizkoa	27,560	100.0	570	2.1	794	3.0
	B.O. Berria/Etxeb. Soziala	5,010	17.8	195	4.0	-414	-7.6
	Berria librea	5,117	19.4	-124	-2.4	168	3.4
	Erabilia	14,053	51.2	225	1.6	658	4.9
	Librea/Librearen Alokairua	3,380	11.5	275	8.8	382	12.7
ALOKAIRU ETXEBIZITZEN BATEZ		Euroak		Euroak	Ald %	Euroak	Ald %
Euskal Autonomia Erkidegoa	BOE / Soziala	219.8		-4.5	-2.0	-14.0	-6.0
	Librea	875.3		-19.0	-2.1	-93.6	-9.7
ETXEBIZITZA BAT SALTZEKO BEHAR		8.6		-0.6	-6.1	0.1	1.2
AZKEN PREZIOAREN MURRIZKETAREN BATEZ BESTEKO EHUNEKOAK. ETXEBIZITZA ERABILIAK		%		Aldea portzentaje puntutan		Aldea portzentaje o puntutan	
Euskadiko AE		11.4		-1.8	-13.4	0.6	5.4
Araba / Álava		7.4		-0.3	-4.3	3.8	107.0
Bizkaia		11.9		-2.1	-14.8	0.6	5.5
Gipuzkoa		11.8		-1.8	-13.3	0.0	-0.1

(1) *Etxebizitza berria, kolektiboa, sustapen librekoa, sustatzaileak zuzenean eskainitakoa, akabera-maila "normalarekin" eta 60-90 m²-ko azalerarekin.*

Ohar metodologikoa

Hiruhilekoaren amaieran elkarrizketatutako 119 higiezin agentziak eta 5 etxebizitza baino gehiagoko sustapenak dituzten 171 enpresa sustatzaileak osatutako lagin batetik atera dira 2009ko laugarren hiruhilekoari buruz aurkeztutako datuak. Nolanahi ere, ez dira salmenta-prezioak, eskainitako prezioak baizik. Prezioak, eskaintza eta alokairuak kalkulatzeko, laugarren mailako batez besteko mugikorak ateratzen dira, ausazko aldagetak gutxiagotzeko.



**ETXEBIZITZA, HERRI LAN
ETA GARRAIO SAILA**
Zerbitzu Zuzendaritza
Estatistikarako Organo Berezia

**DEPARTAMENTO DE VIVIENDA,
OBRAS PÚBLICAS Y TRANSPORTES**
Dirección de Servicios
Órgano Estadístico Específico

Informazio gehiago izateko:

Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila Zerbitzu Zuzendaritza. Estatistikarako Organo Berezia

Donostia kalea, 1 – 01010 Vitoria-Gasteiz

Harremanetarako pertsona: Edurne Domingorena

Tel.: +34-945-01 97 12 Faxe: +34-945-01 64 07

Prentsa-oharrak Interneten: <http://www.garraioak.ejgv.euskadi.net/r41-429/es/>

WEB: <http://www.garraioak.ejgv.euskadi.net/r41-429/es/>